

eragin!

# HEZKUNTZAKO LANGILEOK ERAGITEN ARI GARA!

*Hezkuntza Legearen prozesua abiatu zenetik, sindikatuokin, besteak beste, lan baldintzen inguruan negoziatzea eskatu dugu. Eta horretarako borondaterik ez zegoela ikusita, greba eta mobilizazioetara jo dugu. Borrokak bere fruituak eman ditu eta hezkuntzako langileen lan-baldintzei dagokienean eduki oso garrantzitsuak jasotzen dituen akordioa lortu dugu.*

## LAN BALDINTZAK

✓ Hezkuntzako langile guztion lan baldintzak hobetzeko oinarriak ezartzea lortu dugu, negoziazio mahai bakoitzean garatu eta zehaztuko direnak (ikusi OINARRIAK)

✓ Eusko Jaurlaritzak lan baldintzez nahiz hezkuntza ereduaz negoziatzeko mahai sindikala deitzea lortu dugu. Gaitegian, hezkuntza langileon aldarrikapen historikoak, hala nola, enpleguaren bermea, behin-behinekotasunaren jaitsiera edota homologazioa.

✗ Hilabetetan zehar den-denok sindikatuokin negoziatzea aldarrikatu badugu ere, STEILAS, ELA eta CCOOek mahai sindikalera joateari uko egin diote, bere ibilbidea baldintzatuz.

**Orain zer?** Mahai sindikalean jarritako oinarriak nahiz eremu bakoitzean dauden bestelako aldarrikapenak mahai sektorial bakoitzean negoziatu eta akordio berriak lortzeko atea ireki da. Eremuz eremu lan-baldintzetan aurrerapausoak egiteko unea da.

## HEZKUNTZA LEGEA

Irailean aurkeztutako lege aurreproiektuaren zirriborroa oso eskasa zen, eta hala salatu genuen. Maiatzean publiko egindako behin-betiko lege aurreproiektuak ekarpen eta hobekuntza batzuk jaso baditu ere, badira, oraindik ere, zuzendu edota zehaztu beharreko gaiak:

- Zioetan ez da jasotzen hezkuntza sistema propioa izateko eskubidea, ezta Euskal Herriko gainontzeko lurraldeekin harremana estutu edota Euskal Curriculuma eratzeko borondatea ere.
- Euskal Hezkuntza Zerbitzuari "publiko" abizena jartzea desegokia da. Ezin da amaierako geltokia izan, sare publiko, bakar eta deszentralizatu baterako, konfluentziarako eszenatokia baizik. Ildo horretan, honako bi aldaketa hauek borrokatuko ditu LABek: alde batetik, funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeen betebeharrak betetzen direla bermatzeko tresnak (betebehar horiek betetzen ez direnean, ituna galtzeko aukera esplizituki jasoz); bestetik, titulartasun partekatu edo mistoaren formula legez jasotzea, finantzazio publikoa jasotzen duten ikastetxeen titulartasunean udalen edo mankomunitateen parte hartzea ahalbidetuz.
- Eskola publikoa erdigunean jartzeko neurriak zehaztu behar dira; bereziki, planifikazioari loturikoak.
- Funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxe guztietan hizkuntza ereduak gainditu eta euskararen ikasteredu orokortu eta inklusiboa progresiboki ezartzeko planifikazioa jaso behar da. Baliabide eta kanpo-ebaluazio espezifikoak ezarriz eta etapaz etapa ezarritako irteera profilak lortzen direla bermatuz.
- Inklusioaren aldeko neurrien eta segregazioaren kontrako neurrien inplementazioa zehaztu eta araubideak berrikusi behar dira, kohesio sozialaren printzipioaren arabera.

**Orain zer?** Lege aurreproiektuaren hutsuneak zuzentzeko presio egiten jarraitu beharra dago, LABek hezkuntza lege on bat lortzeko eragiten jarraituko du. Besteak beste, Eusko Legebiltzarrean agerraldia egingo dugu gure ekarpenak defendatzeko, eta Legebiltzarreko talde guztiei helaraziko dizkiegu. Mahai sindikala ere izan liteke horretarako tresna, baina, momentuz, STEILAS, ELA eta CCOOek zapuztu egin dute aukera hori.



LAB

Euskal eskola publiko komunitarioa iruten

# LAN BALDINTZEN INGURUKO OINARRIAK

## 1. ARLO PUBLIKOAN

**Azpisektore guztietan PLANTILLAK MANTENTZEA**

- Hurrengo urteetan jaiotze tasaren beherakadak sortu dezakeen egoerari aurrea hartu.
- Eskola publikoa indartu, gela itxieren aurrean enpleguari eutsiz.
- Etorkizuneko giza baliabideak bermatu eta zeregin berrietarako baliatu: hizkuntza-proiektuak, euskararen irakaskuntza indartzeko, hezkidetza proiektuak garatzeko edota aniztasunaren trataerarako.
- Lanpostuak bermatu.

**Azpisektore guztietan BEHIN-BEHINEKOTASUNA MUGATZEA**

- Behin-behinekotasuna %5era mugatzea
- EPE prozesuak hiru urtero egitea eta horietan 3 urtez dotazioa izan duten lanpostu guztiak ateratzea (ezingo dituzte estrukturalak diren lanpostuak ezkutuan izan).
- Irakasleen EPE ereduaren aldaketa negoziatzea.

**Azpisektore guztietan PLANTILLAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK ADOSTEA**

- Irakasleak: 2022an lortutako berrikuntza pedagogikoko figuraz gain, euskararen irakaskuntzarako programetarako, hezkidetzarako eta aniztasunaren trataerarako. Formazio eta laguntza-programa gehigarriak.
- Heziketa Berezia: aniztasun eta inklusiorako irizpideak, funtzioak zehaztea, ratioak adostea eta formazio-programak.
- Sukaldari eta Garbitzaileak: egungo beharrak eta etorkizunekoak aztertuz esleipen irizpideak negoziatu eta enplegu plana egin.
- Haurreskolak: egungo beharrak eta etorkizunekoak aztertuz esleipen irizpideak negoziatu.

**Hezkuntza Laguntzaile Espezialistaren soldata Haur Hezitzaileenarekin PAREKATZEA**

- Antzeko funtzio eta ardurak dituztenekin parekatu 2004, 2025 eta 2026an
- % 10,4ko igoera

**Kolektibo feminizatuen eta prekarioenak diren kolektiboen AITORTZARAKO NEURRIAK ADOSTEA**

- SUKALDE ETA GARBIKETAKO langileen lanaren balio politiko, sozial eta ekonomikorako.

**Jangela ereduaren inguruko AZTERKETA egitea 2024-2025ean, langileen izaera barne**

- Orain, azpikontratatua; etorkizunean?
- Langileen kudeaketa publikorako ereduak aztertu

**Langile kolektibo guztiak EUSKALDUNTZEA**

- Lanpostu zerrendetan hizkuntza-eskakizunak zehaztu.
- Etengabeko euskalduntzea bultzatu eta plan berezituak euskaldunak ez diren kolektiboetan: lanbide heziketa eta sukalde eta garbiketako langileak.

## 2. IKASTOLAK ETA GIZARTE EKIMENA

**Arlo publikoko langileekin SOLDATA PAREKATZEA**

- 2023 eta 2024an azterketa
- 2025-2026 / 2026-2027 kurtsoetan gauzatu

**Langileen kontratazioa egiterakoan GARDENA DEN EREDUA EZARTZEA**

- Berdintasun, meritu eta maitasun printzipioetan oinarrituta eta eskaintzen publizitatea.
- Itundutako eskola bakoitzak lanpostu zerrenda 2 urtero egiteko betebeharra.

**Arlo publikoko langileen lan baldintzekin homologatzeko AZTERKETA abiatzea**

- 2023 eta 2024an zehar azterketa
- Soldata ez den beste lan baldintzak. Prozesua zein baldintzetan egingo den adostuko da, ikastetxeen proiektua, koordinazioa eta formazioa bermatuz.

**Adostasunezko publifikazio prozesuetarako araudia negoziatzea, langileak SUBROGATUZ**

- Langile kolektibo bakoitzaren subrogazio-baldintzak adostu.
- Langile bakoitzaren egoerari erantzuteko irtenbide adostuak: titulazioa eskuratzeko moratoriak, euskalduntze planak, antzinatasuna bermatzea, lan-legepeko kontratazioa, etab.

## 3. AZPIKONTRATATAK

**Azpikontratatuta dauden eremuen AZTERKETA eta EREDUA eztabaidatu**

- Azterketa egiteko prozedura, oinarrizko aztergaian eta irizpidea 2023an adostu.
- Emaitzarik onenak dituzten ereduak lehenetsi eta gauzatzeko plangintza garatu, garbitzaile, jangelako hezitzaile zein autobusetako langileak lehenetsiz.

eragin!
Euskal eskola publiko komunitarioa iruten

LAB

*eragin!*

# LAS Y LOS TRABAJADORES DE EDUCACIÓN ESTAMOS INCIDIENDO!

*Desde que se inició el proceso de la Ley de Educación, hemos reclamado entre otros que se negociara sobre las condiciones laborales con los sindicatos. Y tras ver que no había voluntad para ello, hemos realizado huelgas y movilizaciones. La lucha ha dado sus frutos y hemos conseguido un acuerdo que recoge contenidos muy importantes respecto a las condiciones laborales de las y los trabajadores.*

## CONDICIONES LABORALES

✓ Hemos conseguido establecer las bases para mejorar las condiciones laborales de todos y todas las trabajadoras de educación, que se desarrollarán y concretarán en cada una de las mesas de negociación (ver BASES).

✓ Hemos conseguido que el Gobierno Vasco convoque la mesa sindical para negociar sobre condiciones laborales y modelo educativo. En el orden del día se trataron reivindicaciones históricas de las y los trabajadores de educación, como la garantía de empleo, el descenso de la temporalidad o la homologación.

✗ Aunque a lo largo de meses absolutamente todas hayamos reivindicado negociar con los sindicatos, STEILAS, ELA y CCOO se han negado a acudir a la mesa sindical, condicionando su trayectoria.

**¿Ahora qué?** Se ha abierto la puerta a negociar en cada mesa sectorial tanto las bases establecidas en la mesa sindical como las reivindicaciones de otro tipo existentes en cada ámbito y conseguir nuevos acuerdos. Es el momento de avanzar en materia de condiciones laborales ámbito a ámbito.

## LEY DE EDUCACIÓN

El borrador del anteproyecto de ley presentado en septiembre era muy deficiente y así lo denunciamos. Aunque el anteproyecto de ley definitivo hecho público en mayo contenga algunas aportaciones y mejoras, aún hay temas que deben ser corregidos o concretados:

- En la exposición de motivos no se recoge el derecho de Euskal Herria a tener un sistema educativo propio, ni la voluntad de estrechar lazos con el resto de territorios de Euskal Herria o de crear el Curriculum Vasco.
- Definir el Servicio Educativo Vasco como público es inadecuado. Además no puede ser la última estación, sino un escenario para la confluencia de una red pública, única y descentralizada. En esta línea, LAB luchará por las siguientes dos modificaciones: por un lado, para conseguir las herramientas para garantizar que se cumplen las obligaciones de los centros educativos que reciban fondos públicos (recogiendo de forma explícita la posibilidad de perder el concierto cuando dichas obligaciones no se cumplan); y por el otro, recoger por ley la fórmula de la titularidad compartida o mixta, posibilitantdo la participación de ayuntamientos o mancomunidades en la titularidad de centros educativos que reciben financiación pública.
- Se deben concretar medidas para situar en el centro la escuela pública, sobre todo medidas vinculadas a la planificación de plazas educativas.
- En todos los centros educativos que reciben fondos públicos se debe recoger una planificación para superar los modelos lingüísticos y aplicar de forma progesiva un modelo educativo generalizado e inclusivo del euskera. Estableciendo recursos y evaluaciones externas específicas y garantizando que se consiguen los perfiles lingüísticos de salida etapa a etapa.
- Se debe concretar la implementación de medidas a favor de la inclusión y contra la segregación y revisar las normativas, siguiendo el principio de cohesión social.

**¿Ahora qué?** Hay que seguir presionando para corregir las deficiencias del anteproyecto de ley, LAB seguirá incidiendo para conseguir una buena ley de educación. Entre otras cosas, compareceremos en el Parlamento para defender nuestras aportaciones y se las haremos llegar a todos los grupos del mismo. La mesa sindical también podría ser una herramienta para ello, pero STEILAS, ELA y CCOO han echado por tierra esa posibilidad.

LAB

Euskal eskola publiko komunitarioa iruten

# ACUERDOS RELACIONADOS CON LAS CONDICIONES LABORALES

## 1. EN EL ÁMBITO PÚBLICO

**MANTENIMIENTO DE PLANTILLAS en todos los sectores**

- Anticiparse a la situación que puede generar el descenso de la natalidad en los próximos años.
- Reforzar la escuela pública manteniendo el empleo frente al cierre de aulas.
- Garantizar los Recursos Humanos del futuro y destinarlos a nuevas tareas: proyectos lingüísticos, refuerzo de la enseñanza del euskera, desarrollo de proyectos en coeducación o atención a la diversidad.
- Garantizar los puestos de trabajo.

**LIMITACIÓN DE LA TEMPORALIDAD al 5% en todos los sectores:**

- Realizar los procesos de OPE cada tres años y sacar todos los puestos de trabajo con dotación en los mismos durante 3 años (no podrán tener ocultos puestos estructurales).
- Negociar el cambio del modelo de OPE del profesorado.
- Análisis de la situación del personal docente eventual teniendo en cuenta la edad y antigüedad del trabajador o trabajadora para analizar soluciones.

**ACORDAR LOS CRITERIOS DE ASIGNACIÓN DE PLANTILLAS en todos los sectores**

- Profesorado: Además de la figura de innovación pedagógica conseguida en 2022, para programas de enseñanza del euskera, coeducación y atención a la diversidad. Programas adicionales de formación y apoyo.
- Educación Especial: criterios de diversidad e inclusión, determinación de funciones, acuerdo de ratios y programas de formación.
- Cocina y Limpieza: Negociar los criterios de adjudicación analizando las necesidades actuales y futuras y elaborar el plan de empleo.
- Haurreskolak: negociar los criterios de adjudicación analizando las necesidades actuales y futuras.

**EQUIPARACIÓN salarial del personal Especialista de Apoyo Educativo con personal educativo infantil**

- Equiparación con funciones y responsabilidades similares en 2024, 2025 y 2026.
- 10,4% de incremento.

**CONSENSUAR MEDIDAS PARA EL RECONOCIMIENTO de los colectivos feminizados y precarios**

- Para el valor político, social y económico del trabajo del personal de COCINA Y LIMPIEZA.

**Realizar un ESTUDIO sobre el modelo de comedores en 2024-2025, incluyendo el del carácter del personal**

- Ahora subcontratado, ¿en el futuro?
- Análisis de los modelos de gestión pública de personal.

**EUSKALDUNIZACIÓN de todos los colectivos de trabajadoras y trabajadores**

- Definición de perfiles lingüísticos en las Relaciones de Puestos de Trabajo.
- Impulsar la euskaldunización permanente y planes específicos en colectivos no euskaldunes: formación profesional y personal de cocina y limpieza.

## 2. IKASTOLAS E INICIATIVA SOCIAL

**EQUIPARACIÓN SALARIAL con el personal del sector público**

- Estudio durante 2023 y 2024
- Ejecución en cursos 2025-2026/2026-2027

**IMPLANTAR UN MODELO TRANSPARENTE en la contratación de personal**

- En base a los principios de Igualdad, Mérito y Capacidad y publicidad de las ofertas.
- Obligación de que cada centro concertado elabore una Relación de Puestos de Trabajo cada 2 años.

**Puesta en marcha del ESTUDIO de homologación a las condiciones de trabajo del personal del sector público**

- Estudio durante 2023 y 2024
- Condiciones de trabajo distintas del salario. Se acordarán las condiciones en las que se llevará a cabo el proceso, garantizando el proyecto, la coordinación y la formación de los centros.

**Negociar la normativa para los procesos de publificación por consenso, SUBROGANDO a las y los trabajadores**

- Acordar las condiciones de subrogación de cada colectivo de trabajadores y trabajadoras.
- Soluciones consensuadas para responder a la situación de cada trabajadora o trabajador: moratorias para conseguir titulación, planes de euskaldunización, garantía de antigüedad, contratación laboral, etc.

## 3. SUBCONTRATAS

**Debatir ANÁLISIS Y MODELO de ámbitos subcontratadas**

- Acordar procedimiento para llevar a cabo el estudio, el tema base y el criterio en 2023.
- Desarrollar la planificación para priorizar y ejecutar modelos con mejores resultados, priorizando personal de limpieza y educadoras de comedor y autobuses.

eragin!

Euskal eskola publiko komunitarioa iruten

LAB